

Bidaiateka lehiaketa II

URNIETA 2022

Gazte Informazio-puntuaren helburua Urnietako gazteen mugikortasuna sustatzea da eta lehiaketa honen helburua da, azken urteotan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri ematea.

- 1.- Lehiaketan 2006a baino lehenago jaiotakoek parte hartu ahal izango dute, Buruntzaldeako edozein udaletan (Hernani, Urnieta, Astigarraga, Usurbil, Andoain eta Lasarte), errolaturik daudenak edo ikasten edota lan egiten ari direnak.
- 2.- Sariak emateko prozedura konkurrentzia lehiakorraren bitartez izango da, aurkeztutako hautagaien artean.
- 3.- Lehiaketak bi fase izango ditu: Aurkezpen fasea eta Azken fasea.
- 4.- Lehiaketak KM0 sari berezia izango du. Sari honek Euskal Herriko bidaiaren bideo onena sarituko du.
- 5.- Lehiaketan indibidualki hartuko da parte, instagram kontuko parte hartze bakarrarekin.
- 6.- Lehiaketan parte hartzeko Instagrameko kontu batetik bideo bat igo behar da *feed*-era 2022ko **maiatzaren 2tik** (00:00) **5ra** (23:59), bidaiaren lehen aurkezpena eginez. Bideoak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:
 - Bideoaren gehieneko iraupena 60 segundu
 - Instagrameko arau teknikoak errespetatu
 - @gazteinfournieta profila jarraitu
 - Feedeko testuan @gazteinfournieta aipatu eta #BidaiatekaUrnieta *hashtag*a erabili
 - @gazteinfournieta profilari jarraitzaile moduan onartu (profil pribatuen kasuan)
 - KM0 sarira hautatzeko *feed*eko testuan #KM0 *hashtag*a erabili
 - Bidalitako irudietan edo bideoetan ezin izango da datu pertsonalik edo harreman-daturik agertu.
- 7.- Azken fasera zein hiru bideo pasako diren, publikoak **maiatzaren 9a arte** (17:00etan) emandako "atsegin dut"-en bidez erabakiko da. "Atsegin dut" **kopuru handienak jasotzen dituzten 3 bideoak** izango dira. Azken fasera igaroko direnak. "Atsegin dut" kopuruan berdinketa izanez gero epaimahaiak erabakiko du zein igaroko den Azken fasera.
- 8.- KM0 sarira aurkeztutako bideoen artean, atsegin dut gehien dituzten 3 bideoak hautatuko dira azken fasean lehiatzeko.
- 9.- Azken fasera igarotzeko hautatuek parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela bermatuko da (adina eta jatorria). Azken fasera igarotzen direnen zerrenda **maiatzaren 10ean** argitaratuko da.
- 10.- Azken fasean lehiatzeko, hautatutakoek bidaiaren informazio zabalagoa emanez bideo bat prestatu eta bidali behar dute **maiatzaren 16rako** (15:00) gazteinformazioa@urnieta.eus helbidera, ondorengo baldintzak bete beharko ditu:
 - Gehienez 5 minutu iraun ditzake bideoak
 - Bideoak Instagrameko arau teknikoak errespetatu behar ditu (formatua, musikaren jabetza intelektuala, pisua...)
 - Bideoa horizontalean egongo da.
 - Bideoan bidaiaren azalpena emango da (nundik norakoak, bidaiaren arrazoia, bertan ikusitakoak...)
- 11.- Bideoak **maiatzaren 18an igoko dira** @gazteinfournieta-ko IGTV-tik (instagram).
- 12.- Bideo irabazlea aukeratzeko, honako irizpideak kontutan hartuko dira:

PUNTAUK	0	1	2	3	4	5
Bistaratzek	0 bistaratzek	1-100 bistaratzek	101-500 bistaratzek	501-1000 bistaratzek	1001-2000 bistaratzek	2001 bistaratzek baino gehiago
Atsegin dut kopurua	0 atsegin dut	1-100 atsegin dut	101-250 atsegin dut	251-400 atsegin dut	401-550 atsegin dut	551 atsegin dut baino gehiago

PUNTAUK	0	1	2
Material grafikoaren kalitatea	Ez da egokiak eta kalitate txarrekoa da	Erabiltzen diren argazki, bideo, testuak... egokiak dira baina kalitate txarrekoak	Egokiak dira eta kalitate onekoak
Azalpena	Ez du bidaiaren azalpenik ematen	Bidaiaren azalpen xumea ematen da	Bidaiaren azalpena modu argian ematen da
Komunikazio trebetasunak	Bidaiaren nondik norakoak azaltzen dira baino ez dira argi geratzen	Bidaiaren nondik norakoak argi geratzen dira	Eta gainera modu arin eta erakargarri batean
Originaltasuna	Bideoa ez da originala	Bideoaren zati batzuk originalak dira	Bideoa guztiz originala da
Balorazio askea	0-2 puntu		

Bidaiateka lehiaketa II

URNIETA 2022

13.- Bideoen atsegin dut eta bistaratze kopuruak **Maiatzaren 23an (16:30)** neurtuko dira.

14.- Epaimahaia Gazteria zinegotziak (edo honek hautatutako ordezkioak), Haurtzaro eta Gazteria teknikariak (edo honek hautatutako ordezkioak), Sustapeneko zeharkako gaien teknikari laguntzaileak (edo honek hautatutako ordezkioak) eta gazte-informatzaileak (edo honek hautatutako ordezkioak) osatuko dute.

15.- Lehiaketaren sariak honakoak izango dira:

- Aurkeztu eta Azken fasera igarotzen ez direnen artean, 3 bidai gida zozkatuko dira.

- Behin betiko sailkapena: 1.postua 250€, 2.postua 150€ eta 3.postua 100€

- KM0 saria: Euskal Herriko bidai bideorik onenari 150€

16.- Lehiaketaren emaitza finalistei jakitera emango zaie aurrena eta Urnietako Udaleko WEB orrian eta herriko komunikabideetan argitaratuko da. Finalistek baimena ematen dute bere izenaren eta sariaren aipamena bitarteko horien bidez egin ahal izateko, egindako lehiaketaren emaitza jakinarazteko eta bideoa publiko egiteko.

17.- Bideoen irudiak Urnietako udaleko difusio kanaletan eta gazte informazio puntuaren sare sozialetan erabili ahal izango dira. Helburu horretarako, parte-hartzaileek irudi-eskubideak zein lehiaketa honetan parte-hartzeko bideo eta irudien gaineko jabetza-eskubide guztiak dohainik ematen dizkiote Kulturnieta S.A.-ri eta Urnietako Udalari.

18.- Parte-hartzaileak bermatuko du bideoko irudietan agertzen diren pertsona guztien irudia igotzeko eta horiek publikoki agertzeko ageriko legitimotasun eta baimen nahikoak dituela. Baimen horrek barne ditu lehiaketa honen baitan parte-hartzaileek igotako irudien erabilera eta komunikazio publikoa, lehiaketa honen eta bere emaitzen berri ematen den edozein material edo euskarritan.

19.- Era berean, parte-hartzaileak bideoaren gaineko jabetza eta kontrola bermatzen ditu, aldi berean ez duelarik hirugarren pertsonen inolako irudi, ohore, jabetza intelektual edota industrialik, ez bestelako eskubiderik urratzen, Urnietako Udalaren eta Kulturnieta S.A.-ren edo hirugarren batzuen aurrean erantzun behar duelarik, edozein kalte eraginez gero, aurretik adierazitakoak betetzen ez badira.

20.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean.

Urnietan, 2022ko _____n.